

## IRAKASKUNTZA-GIDA

2022/23

**Ikastegia** 160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala  
**Plana** GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

**Zikl.** Zehaztugabea  
**Ikastaroa** 4. maila

## IRAKASGAIA

25954 - Hezkuntza Gainbegiratzea eta Etika Profesionala

**ECTS kredituak:** 6

## IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

Hezkuntza gainbegiraketa prozesuek, Gizarte Langintzan graduatua diren pertsonen osoko garapena laguntzen dute, euren gaitasun profesionalak garatuz. Lagunza lanbideek, lanbide sozio-psiko-sanitariak deiturikoak ere, pertsonen zainketa eta arreta garatzen dute, eta lagunza aurrera eramatzen duen profesionala dute baliabide nagusitzat. Lan honetarako ezagutza tekniko profesionalak baino gehiago behar da. Profesional hauek, ezagutza teoriko-metodologikoak izateaz gain, nahitaez, harremanetarako gaitasunak eta hausnarketa epistemologikorako zein kritikorako ahalmena garatu behar dute.

Ikuspuntu honetatik, gainbegiraketa ikaskuntzarako metodologia bat da, alderdi epistemologikoetaz, testuinguru-erakundeetaz, tekniko-metodologikoetaz, pertsona barrukoetaz (intrapertsonaletaz), pertsona artekoetaz (interpertsonaletaz) eta etiko-ideologikoetaz hausnartzeko bidea eskaintzen duena. Hortaz, praxiari buruz eta gizarte langintzaren jardute profesionalaren inguruan hausnartzeko espazioan bilakatzen da.

Ikasgai honek akonpainamendua, hausnarketa eta ikasketa dinamikoa du helburu, ikasleek Gizarte Langintzako ikasketetan zehar eta praktika curricularretan bereganatzen dituzten ezagutzen analistik eta hausnarketatik abiatuz.

Irakasgai hau E Moduluan kokatzen da: Praktikak eta gradu amaierako lana.

## AURRE BALDINTZAK:

- \* Hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala ikasgia Kanpoko praktikak: practicum ikasgaiarekin batera ikasi behar da.
- \* Hezkuntza gainbegiratzea eta etika profesionala eta Kanpoko praktikak: practicum ikasgaietan matrikulatzeko betebeharreko aurrebaldintzak hurrengoak dira:
  - Jardute Profesionalerako Sarrera ikasgia gainditua edukitzea. Honek eskatzen du aurretik Gizarte Errealitateen Behatokia eta Gizarte Baliabideen Behatokia ikasgaiak gaindituak izatea.
  - A Moduluko 24 ETCS gaindituak izatea.

## GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

### PRAKTIKAK ETA GRADU AMAIERAKO LANAREN MODULUKO GAITASUNAK:

\* Gizarte esku-hartzearen dilema etikoak ulertu eta identifikatu, eta baita ere, balioak, printzipio etikoak eta gizarte langintzako kode deontologikoak aplikatu.(M06CM02)

\* Konklusiak ahoz eta idatziz komunikatu, modu egituratuan eta dagokion audientziari egokiatuak.(M06CM09)

### IKASGAIAREN GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

- 1.Gizarte Langintzari buruz hausnartu, esku-hartze profesionala garatu den eta garatzen ari den testuinguru historikoak, sozialak eta politikoak kontuan hartuz.
- 2.Gizarte Langintzaren oinarriak definitu, diziplina eta lanbidea den heinean, haren objektua eta helburuak identifikatuz.
- 3.Gizarte Langintzaren prozesu metodologikoa garatu, esku-hartze profesionalaren prozesua eta prozedura ulertz.
- 4.Garatu beharreko funtzioak identifikatu, gizarte langileen esku-hartzea kritikoki baloratuz estrategi profesionalak hobetzeko asmoarekin.
- 5.Gizarte Langintzaren espezifikotasuna eta diziplina anitzeko garrantzia esparru partekatuan ulertu.
- 6.Kritikak egiteko gaitasuna garatu, jardute profesionalean sortzen diren gatazka, dilema eta arazo etikoei aurre egiten.

## EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

### ANECAK ONARTUTAKO EDUKIEN DESKRIBAPENA:

1. Ezagutza teorikoak eta ezagutza praktikoak: euren arteko harremana.
2. Ikerketa eta jardute profesionalaren sistematizazioa.
3. Gizarte Langintzaren metodologia, teknikak eta tresnak: aplikazioa.
4. Gizarte langilearen funtziokoak eta rola. Bestelako profil profesionalekiko elementu komunak eta berezitzaleak.
5. Etika, balioak eta deontologia Gizarte Langintzan. Gizarte langileen kode deontologikoa. Dilema eta arazo etikoak.
6. Esku-hartze profesionalaren oinarrizko estrategiak: entzute-aktiboa, enpatia, asertititatea eta gatazken kudeaketa.

Honetarako, banakako zein taldekkako gainbegiraketan jardute profesionalarekin zerikusia duten gaiak landuko dira, honako ardatzak kontutan izanik:

1. Ardatz epistemologikoa: Aztertuko diren sistema ezberdinengatzen eraikuntza eta berreraikuntza.
2. Testuingurua-erakundearen Ardatza: Batetik gizarte politikari eta bestetik erakundearen sistemaren antolakuntzari dagokiona, bere egitura komunikatiboa, erlazionala, boterearena, etab.
3. Ardatz tekniko-metodologikoa: Gizarte esku-hartze prozesua aztertzen duena.
4. Ardatz intrapersonala: Ikasle bakoitzaren estiloari buruz, bere gaitasunak, eta hobekuntza bideak.
5. Ardatz interpersonala: Profesionalen edo lan taldearen arteko harremanetan zentratua.
6. Ardatz etiko-ideologikoa: Gizarte auziaren analisia eta jarrera hartzean, sistema guztiak gurutzatzen dituena eta balioak kontuan hartzen dituena, Gizarte Langintzaren Kode Deontologikoa.

## METODOLOGIA

Ikaskuntzaren ikuspegi konstruktibistan datza. Eginez ikastea ikaskuntzaren ikuspegia proposatzen da, esperimentazioan, autogogoetan eta bateratzean oinarritua. Modu orekatuan konbinatuko dira teoria, praktika eta hausnarketa.

Mintegiak, metodologia bezala, ikaslearen ebaluaketa ahalbideratzen du, eta auto ikastaldiaren garapena ezagutzeko ere laguntzen du.

Ikasgaiaren gaitasunak garatzeko, ekintza presentzialak eta ez presentzialak uztartzen dira:

- Testu akademiko-profesionalak.
- Gainbegiraketa koadernoak.
- Gainbegiratu beharreko egoera.
- Banakako eta taldeko gainbegiraketak.
- Ikaskuntza prozesuaren ebaluazioa eta autoebaluazioa.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak		60							
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a		90							

Legenda: M: Magistrala

GL: Laborategiko p.

TA: Tailerra

S: Mintegia

GO: Ordenagailuko p.

TI: Taller Ind.

GA: Gelako p.

GCL: P. klinikoak

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Banakako lanak % 50
- Autoebaluazio protokoloa % 50

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

### ETENGABEKO EBALUAZIO-SISTEMA

- Klaseetan parte hartu behar da.
- Ikaslearen aldetik aurkeztu beharreko lanak eta dokumentazioa:
  - \*Gainbegiraketa koadernoa: irakasleak eskainitako ereduaren arabera.
  - \*Gainbegiratu beharreko egoera: irakasleak eskainitako gidoaren arabera.
  - \*Autoebaluazio protokoloa: urtarilean eta maiatzean bete beharrekoa.
- Ikasle eta irakaslearen arteko %50eko ebaluazio-autoebaluazio sistema eramango da aurrera. Ikasgaia gainditzeko ikaslearen eta irakaslearen arteko batez besteko nota egiteko, bi alderdiak gaindituak egon behar dira.

### AZKEN EBALUAKETA

Azken froga, irakaskuntza gidan jasotako derrigorrezko materialetatik abiatuta (azken notaren %100a).

### ETENGABEKO EBALUAZIOARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Ikasleak irakasgaiaren irakasleari idatziz aurkeztu beharko dio. Horretarako, bederatzi asteko epea izango du, lauhilekoa hasi ondoren.

### OHIKO DEIALDIARI UKO EGITEKO PROZEDURA ETENGABEKO EBALUAZIOAN

Ikasleak irakasgaiaren irakasleari idatziz aurkeztu beharko dio. Horretarako, irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino hilabete bat lehenago egingo beharko du.

### AZKEN EBALUAZIOARI UKO EGITEKO PROZEDURA

Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea.

### BESTELAKOAK:

- Ebaluazio probetan ikasleek debekatuta dute liburuak, oharak edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektroniko, informatiko edo bestelakoak erabiltzea ere.
- Jokabide makur edo iruzurrezkotzat joko dira ebaluazio probetan edo ebaluatu beharreko lan akademikoak egitean eta aurkeztean hurrengoak: lanak plagiatzea, hau da, inoren lanak kopiatzea jatorria edo iturria aipatu barik eta norberarenak balira bezala ematea ebaluazio akademikorako aurkezten diren testu edo lanetan.

## EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ohiko deialdirako ezarritako irizpideak jarraituko dira, bai etengabeko ebaluazio-sistemarako eta baita azken ebaluaketa sistemarako ezarritakoak ere.

## NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

### IRAKASLEAK ESKAINITAKO MATERIALA:

- Isilekotasun hitzarmena
- Gainbegiraketa koadernoaren eredua
- Gainbegiratu beharreko egoeraren gidoia
- Autoebaluazio protokoloa
- Oinarrizko bibliografia (derrigorrezkoa)

## BIBLIOGRAFÍA

### Oinarrizko bibliografía

Arenaza, Miriam (2020). Eta persona batek ez badu lagundi dezaten nahi&#8230; In Berasaluze, Ariño, Ovejas eta Epelde (koord.), Supervisión en trabajo social: una metodología para el cambio (43-54). Aranzadi.

Arija, Belén (1999). Apuntes para una reflexión teórico-práctica de la relación de ayuda. Cuadernos de Trabajo Social, 12, 141-158.

Berasaluze, Ainhoa eta Ariño, Miren (2014). Hezkuntza-gainbegiratzetik gainbegiratze profesionalera. Cuadernos de Trabajo Social, 27-1, 105-115.

Berasaluze, Ainhoa eta Ovejas, Charo (2022). Los desafíos de la intervención social en el sistema de servicios sociales. In Servicios sociales y vulnerabilidad frente a la pandemia (71-85). Eguía Careaga Fundazioa.

Berasaluze, Ainhoa; Epelde-Juaristi, Maddalen; Ariño-Altuna, Miren eta Ovejas-Lara, Rosario (2022). ¿Cómo abordar dificultades del trabajo social en los servicios sociales? Una Investigación-Acción-Participación (IAP) sustentada en la supervisión. Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social, 29 (2), 259-281.

Cardona, Josefa y Campos, José Francisco (2018). La dimensión relacional del trabajo social: una perspectiva colaborativa. Revista Treball Social, 214, 29-43.

Dalmasso, Eduardo (2005). *Mi equipo y yo. La Trama*, 17.

Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra (2012, 3. Edizioa). *Gizarte Langintzako Kode Deontologikoa*. Madrid: Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra.

Hernando, Mónica (2020). Erasotzaileekin enpatia izatea? In Berasaluze, Ariño, Ovejas eta Epelde (Koord.), *Supervisión en trabajo social: una metodología para el cambio* (71-80). Aranzadi.

Idareta-Goldaracena, Francisco (2021). ¿Cuáles son las virtudes morales para ser una buena trabajadora social? Aproximación de la ética cordis de Adela Cortina al trabajo social. *Trabajo Social Global*, 11, 86-104.

Madrid, Jesús (2005). La destreza de escuchar. In *Los procesos de la relación de ayuda* (375-413). Desclée De Brouwer.

Navarro, Belén (2019). Sobre el pensamiento complejo. *Cuadernos de Trabajo Social*, 32(2), 471-474.

Navarro, Belén (2019). *Ikuspegidun gela*. In Xavier Montagud (Koord.), *Cuando el trabajo social es literatura*. Naullibres.

Pelegrí, Xavier (2018). Repensando el poder de los profesionales del trabajo social. *Revista de Treball Social*, 212, 31-46.

Pirla, Alba (2019). *Gizarte Langintza biluztea*. In Montagud (koord.). *Cuando el Trabajo Social es literatura*. Naullibres.

Puig, Carmina (2015). Diez propuestas para cuidarse y cuidar en las profesiones sociales. Hacia la construcción de una cultura del cuidado en los profesionales. *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social*, 22, 171-183.

Rodríguez, Arantza (2020). El aporte de la supervisión en trabajadoras familiares de un servicio de ayuda a domicilio. Relatos y conclusiones de una experiencia. *Revista de Treball Social*, 218, 103-121.

Rodríguez, Pepita (2020). El trabajo social y las instituciones. La introyección de la cultura institucional en el quehacer diario de los trabajadores sociales. In Fombuena (koord.), *El Trabajo Social y su acción profesional* (179-195). Naullibres.

Villarejo, Cristina (2020). Zer gertatzen ari zait?, In Berasaluze, Ariño, Ovejas eta Epelde (Koord.), *Supervisión en trabajo social: una metodología para el cambio* (111-120). Aranzadi.

Viscarret, Juan Jesús (2009). Modelos de intervención en Trabajo Social. In Fernández, Tomás (Koord.), *Fundamentos del Trabajo Social* (293-344). Madrid: Alianza.

Zamanillo, Teresa (2018). El Trabajo Social y el neoliberalismo. Aproximaciones a una definición abierta a la complejidad social. *Trabajo social UNAM*, 18, 139-157.

Zamanillo, Teresa eta Nogués, Luis (2020). Carta abierta a profesionales y políticos de los servicios sociales en tiempos de la Pandemia del Covid 19. Asociación Foro SERV SOCIAL Madrid.

### **Gehiago sakontzeko bibliografía**

BERASALUZE, ARIÑO, OVEJAS eta EPELDE (koord.) (2020). *Supervisión en trabajo social: una metodología para el cambio*. Aranzadi.

CARBALLEDA, Alfredo Juan Manuel (2007): Escuchar las prácticas. La supervisión como proceso de análisis de la intervención en lo social. Espacio.

DE VICENTE, Irene (2009): El lugar de la supervisión educativa en la formación de grado en Trabajo Social. [Doctoral thesis: [www.tdx.cat](http://www.tdx.cat)]

HERNÁNDEZ, ARISTU, Jesús (2019). Pensar con el corazón, actuar comunicativamente. Eunate Ediziona.

ITUARTE, Amaia (2012). Una reflexión sobre los modelos de intervención de los trabajadores sociales desde la experiencia de la supervisión. In Sobremonte, Emma (Ed.). *Epistemología, teoría y modelos de intervención en Trabajo Social* (191-204 or.). Deusto Digital.

IZAOLA, Amaia (koord.) (2021): Reflexiones éticas desde el ámbito sociosanitario. UPV/EHU.

PASTOR, Enrique(Ed.)(2014): Las prácticas curriculares en el Grado de Trabajo Social. Supervisión y construcción del conocimiento desde la práctica profesional. Universitas.

PUIG, Carmina (2015): La supervisión en la acción social. Una oportunidad para el bienestar de los profesionales. URV.

ZAMANILLO, Teresa(Zuz.)(2011): Ética, teoría y técnica. La responsabilidad política del Trabajo Social. Talasa.

### Aldizkariak

- Servicios Sociales y Política Social. Gizarte Langintzako Kontseilu Orokorra.
- Cuadernos de Trabajo Social. Complutense Unibertsitatea.
- Treball Social. Kataluniako Gizarte Langintzako Elkargo Ofiziala.

### Interneteko helbide interesgarriak

#### BLOG SARRERAK

POST: ¡Que viene el BOE! (Burocracia&#8230;)   
<https://trabajosocialytal.com/2021/02/que-viene-el-boe>

POST: futuro distópico para los servicios sociales.   
<https://tribulacioneschino.blogspot.com/2019/03/un-futuro-distopico-para-los-servicios.html#comment-form>

POST: Sobre encargos y expectativas   
<https://trabajosocialytal.com/2020/11/sobre-encargos-y-expectativas>

POST: Gafas sistémicas para trabajadores sociales   
<https://www.macroscopiosistemico.com/trabajo-social-sistematico/>

POST: El PRISO aprisiona (sobre proyectos de intervención)   
<https://trabajosocialytal.com/2021/05/el-priso-aprisiona>

POST: Elemental. Segunda parte (visita domiciliaria)   
<https://trabajosocialytal.com/2021/05/elemental-segunda-parte>

POST: Sobre el Diagnóstico Social   
<https://trabajosocialytal.com/2020/12/reflexiones-sobre-el-diagnostico-social>

POST: Bunkerización (sobre la relación de ayuda)   
<https://trabajosocialytal.com/2021/03/bunkerizacion>

POST: Crear vínculo   
<https://trabajosocialytal.com/2020/05/crear-vinculo>

POST: Sobre eso que llamamos relacional   
<https://trabajosocialytal.com/2020/02/sobre-eso-que-llamamos-lo-relacional>

POST: Injusticia Social   
<https://trabajosocialytal.com/2021/02/injusticia-social>

POST: La necesaria mirada ética   
<https://trabajosocialytal.com/2020/07/la-necesaria-mirada-etica-en-trabajo-social>

### OHARRAK

Iatzizko komunikazioan zuzentasun ezak (gramatikala eta ortografikoa) suspentsoa ekar dezake.